

XEDAPEN OROKORRAK

OGASUN ETA FINANTZA SAILA

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

3133

AGINDUA, 2013ko ekainaren 25ekoa, Ogasun eta Finantzetako sailburuarena eta Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena, Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko kontratazio-mahaia sortzeari buruzkoa.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretua eta martxoaren 1eko 8/2013 Dekretua, aurrekoa aldatzen duena, indarrean jarri ondoren, beharrezko da Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren kontratazio-mahai berria sortzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazio araubideari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren 4. artikulua xedatzen duena betetzeko.

Ondorioz, Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordeak egindako txostena jaso ondoren, honako hau

XEDATZEN DUGU:

Artikulu bakarra.– Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko kontratazio-mahaia.

1.– Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Kontratazio Mahaia sortzen da, Zerbitzu Zuzendaritzari atxikita, Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazio-arauei buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren 7. eta 5. artikuluetan zehaztutako egitekoak burutu dituzan eta aurreikusitako jardute-eremuan.

2.– Kontratazio-mahaia kide hauek izango ditu:

a) Lehendakaria: Zerbitzu Zuzendaritzako ekonomia eta aurrekontua kudeaketa arloko arduradunetik edozeinek kontratazio-mahaiko Lehendakariaren eginkizunak beteko ditu eta kargua hutsik badago, lehendakaria ez badago edo gaixo badago, edo legean jasotako beste zerbait gertatzen bada, beste arduradunak ordezkatu du.

b) Mahaikide bat kontratazio organoak izendatuta organo horren ordezkari izan.

c) Honako hiru mahaikide hauek: Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkari bat; Ogasun eta Finantza Saileko Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren ordezkari bat; eta Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzaren ordezkari bat. Azken hori, dagozkien titularrek izendatuta eta bakarrik ondasun eta zerbitzu informatikoei lotuta dauden espedienteetan izango da.

d) Idazkaria-mahaikidea-aholkulari juridikoa: Zerbitzu Zuzendaritzari atxikitako kontratazio arduraduna izango da, eta Mahaiko lege-aholkulari eta idazkari lanak beteko ditu (hitza eta botoa izango ditu). Idazkari kargua hutsik badago, idazkaria ez badago edo gaixo badago, edo legean jasotako beste zerbait gertatzen bada, Zerbitzu Zuzendaritzako Kontratazio Zerbitzuko teknikari batek ordezkatu du.

3.– Ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren 6.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, agindu honetan berriaz egiten ez diren izendapenak eta aurreikusten ez diren ordezkapenak, 136/1996 Dekretuaren 6.2 artikuluan lehenengo paragrafoan eta 6.3 artikuluan adierazitako kideei buruzkoak

izan ezik, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuak erabakiko ditu. Izendatutako pertsonen artean ahalik eta alternantzia gutxien egon dadin saiatuko da, eta izendapenek espedientean agertu beharko dute.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen dira xedapen hauek: 2009ko abenduaren 17ko Agindua, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko kontratazio-mahaia sortzeko dena; eta 2011ko otsailaren 9ko Agindua, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko kontratazio-mahaiaren lehendakariaren ordezkape-n araubidea aldatzeari buruzkoa; eta 2009ko urriaren 23ko Agindua, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko kontratazio-mahaia sortzeko dena.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekainaren 25a.

Ogasun eta Finantzetako sailburua,
RICARDO GAZAGAECHERRIA BASTIDA.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua,
ANA ISABEL OREGI BASTARRIKA.